

DIRU-ITURRIAK

Gure produktua kontenedore bat den heinean, bezeroak soilik behin ordaindu beharko du gure produktu hori izategatik. Beste modu batera esanda, gure produktua ordainketa bakarrekoa izango da.

Ildo beretik, gure enpresaren dirua lortzeko iturri nagusia aktiboen salmenta izango da. Bezeroak gure produktua izateko modu bakarra hura erostea izango da, ez baitugu aurreikusten harpidetza edo antzerako zerbitzurik.

Aktiboen salmentari dagokionez, kontenedorearen prezio finkoa izango da, momentuan egon daitezkeen prezio doikuntza salbuetsita. Esate baterako, aurten Espaniar Estatuan izandako inflazio-tasa %8koa izan da. Horren arabera, gerta daiteke egunen batean galeretan ez sartzeko gure prezioak berrezartzeko beharra sentitzea enpresa bezala. Gerta daiteke ere gure produktuaren BEZari dagokion tasa aldatzea denboran zehar aldatzea, 17/2022 Errege Dekretuan hainbat oinarrizko produktuekin gertatu den bezala. Horrenbestez, enpresaren kanpo faktoreek unean-uneko prezioa baldintza dezakete.

Prezioa baldintza dezakeen beste aldagai bat, tokian-tokiko zaborrren kudeaketaz arduratzen den organismoak gure produktua erosi aurretik zituzten kontenedoreak guri ematea izango da. Gure enpresa 2030 Agendarekin eta Aldaketa Klimatikoarekin oso konprometituta dagoenez gero, ordindik erabiliak izan daitezkeen kontenedore horiei bigarren bitzta bat ematea aukera ederra litzatekeela erabaki dugu enpresa bezala. Azken modelo hori, oso erabilia da Sagardoaren negozioan, non botilak bueltatuz gero, botila berriaren prezioa jaisten duen sagardotegiak. Eredu horri jarraika, dagokion organismoak guri kontenedore horiek emanaz gero, produktuaren prezioa jaitsiko diogu, produktuen berrerabilitzea sustatze aldera.

Proiektuarekin has gaitzen, ez dugu hasierako inbertsio handirik beharko; izan ere, hasieran gure kide batek duen biltegian egingo ditugu prentsa-kontenedore guztiak. Horretaz aparte, mugitzeko edo egunean zehar egin beharrekoentzat, gure medio propioak erabiliko ditugu hasiera batean. Aurrerago, eta gure salmentak handitzean, gerta daiteke espazio gehiago behar izatea eta gure lantegia beste leku batera mugitu behar izatea. Azken horiek, momentuan enpresak duen barne-egoeraren arabera erabaki beharreko kontuak izango dira.